

Nafarkaria


• ostirala • 1999ko irailaren 24a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lizarra • Hiritik 25.000 turista inguru pasatu dira aurten, sekula baino gehiago
Aitor Txarterina • «Nahiago dut helduendako ipuinak kontatu»

Argako lanen zelatan



Argaren Plan Integralaren barnean, uztailaren bukaeran hasi ziren lanak ibaiak Iruñean egiten dituen 11 kilometroetan. Argaren Ibai Parkea egiteko lanek ika-mika handia sortu dute hiriburuan; izan ere, bai ibaiertzeko landaretzan eta bai ibai ondoko eraikin historikoetan kalteak eragin ditzakete. Txantreako bizilagunak zelatan ibili dira hondeatzeko makinaren burdinazko atzaparrek mendeetako historia desagertaraz ez dezaten



Hogei buruko ekilorea

Iragan astean NAFARKARIAren irakurle fidel bat Iruñeko erredakziora etorri zen, paseoa ari zela hogei buruko ekilorea aurkitu zuela erratera. Irakurle fin horrek egin zuen mapa zehatzari jarraituz, ekilorea aurkitu genuen Aratzuri eta Itza arteko bidexka batean. Ekilorea ttipia da, berez hazi da, eta zurtoinetik hainbat adar ateratzen zaizkio. Denera, tamaina ezberdineta-ko hogei buru ditu, eta hori ez omen da batere ohikoa, irakurleak adierazi zuenez. Ekilorearen buruko haziak olio egiteko erabiltzen dira edo, bertzenaz, zuzenean jaten ahal dira. Bere berezitasuna dela-eta inork etxera eramaten ez badu, Itzako ekiloreak hazi anitz emanen ditu handitzen denean.

Iruñea

Gaur hasiko dira San Fermin Txikito bestak

IRUÑEKO NABARRERIA BURGUA ASTEBURU guzian ospatuko ditu bere jaiak, Aldapako San Ferminakoak. Gaur hasiko dira bestak, 12:00etan, Aita Klaretarren terrazatik txupinazioa jaurtitzearekin batera. Haurrendako goxoki eta oparitxoak emanen dituzte ondoren. Hiru eguneko jai egitaraua ekitaldiz josita dago, eta gehienak Nabarrerria burguan eginen badira ere, jai giroa Alde Zaharreko karrika guzietatik zabalduko da zurrerik. Ortziralean eginen diren artean aipatzekoak dira mus eta aretoko futbol txapelketak, eta 21:30etan Gaztetxean antzeztuko duten Detritus Corazón lana. Larunbatean, 17:30etan, Redin aldapako erlojuaren kontrako igoera egingo dute; 20:30etan, lagun-taldéen arteko sokatira txapelketa izango da Burguen plazan, eta ordu berean aretoko futbol eta gezi txapelketak jokatu dira Jarautako Giroa eta 84 tabernetan. Azkenik, igandean ezin galtzekoa da 18:00etan egingo den udal plazako euskal jaiak: bertso saioa, txalaparta, irrintzi txapelketa, Muthiko Alaiak dantza taldea eta larrain-dantza gaiteroekin.

Hiru egunetan entzierro txikia eginen dute Klaretarren plazatik abiatuta, eta Maiazaren Bia, Karmen, Nabarrerria eta Kuria karriketatik igarota, berriz ere plazara itzultzeko.

Juantxo Molinak, Aldapako San Fermin Jai Batzordeko kideak, azaldu duenez, Nabarrerriako Jai Batzordeak ez du Udalaren diru-laguntzarik jaso, jaiak «euren gisara» antolatu nahi baitituzte. Izan ere, duela hiru urte Udalak diru-laguntza kendu egin zien egitarauan presoan aldeko testu bat zegoelako. «Programa salduz eta bertan sartutako publizitatearen bidez lortzen dugu diru gehiena», azaldu du Molinak.

Bera • Dantzari Ttiki Eguna iraganen da igandean, bortzgarren aldikoz

BERAKO GURE TXOKOA ELKARTEAK antolatuta, V. Dantzari Ttiki Eguna iraganen da heldu den igandean, hilak 26. Orotara sei talde ariko dira herriko kaleetan barna. Goizean, Amurrioko Aiala dantza taldea, Dimako Gazte Berri, Lasarteko Erketz, Andoaingo Urki, Lesakako

Irain eta Berako Gure Txokoa auzotan banatuko dira, eta euren dantzak eskainiko dituzte. Hamaketa-koa hartuko dute auzo horietan, eta ondotik, eguerdian, Alzateko karrikara bilduko dira dantzatzera. Guztiek batera agurra eta aureskua dantzatuko dute. Ttikienak Berako

dantzarien etxeetara joanen dira bazkaritara, eta arduradunek, berriz, elkarrekin bazkalduko dute Gure Txokoaren egoitzan. Arratsaldean, berriz ere denek batera dantzatuko dute Eztegarra pilotalekuan.

→ Jon Abril

→ Daniel Urrutia

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Etzazula gaizki hartu

Ez jakin fama hartzen ari gara Mendebaldeko bizilagunok. Galdetu bestela etorri berriari, bere oporraldia Txinan, Indian edo uharte urrun batean igaro duenari. Laster argituko dizu non dauden *savoir vivre* errefinatuena eta benetako jakinduria.

Zirrara ere egiten dit hitzak: jakinduria. *Misterio, espezie, basamortu, caravanserai edo loto hitzek egiten didaten zirrara berbera. Alde batetik, irakurri eta idatzitakoak ongi gogoratzeak dakarrena dela esanen nuke. Bestetik, distantziaren lilura.*

Gurean ezer ez da urrun, haiei hemengo norbaitek Ekialde Urrun bat erregalatu zien. Gu ez gara inoiz Mendebalde Urruna izatera iritsiko. Honenbestez, gurean ez da misteriorik, ez dugu ezer gorde, eta daukagun guztia ikusi egiten da, agerian dugu. Bidaiari hunkituak esanen lukeen bezala, Mendebaldeko bizilagunok ez dugu hutsune handi bat baino.

Horren kariazi abiatu ziren lehendabizikoak, orain dela hogeitamar bat urte, espezieen bila irten zirenen grina berak bultzaturik. Antzinako haiek baino lehenago bueltatu ziren, sandalo eta patxuli lurrina hedatzen zutelako, kolore biziz jantzirik, komentziturik meditatuzioa zela bidea. Gauza bitxiak entzuten genizkien: «Zeu zara zeure etsairik handiena» edota «zeure burua ezagutzen duzunean lortuko duzu aske izatea».

Bitxikeria hauen eragina ikaragarria izan zen eta, neurri batean, handitu egin da. Izurrite ezezagunak ekarri zizkiguten. Barrena sobera iraultzea eta gauzak gordetzea kaltegarria zela sinetsi zuten askok. Psiko profesionalak ez ziren goibeldu. Hortik datorke egun hain hedatua dagoen sinzeritate afana. Ezagutu berria duzun edozein ingura dakizuke: «Etzazula gaizki hartu, baina...». Eta *baina* horren ondotik, gordinkeria. *Gizarajo bat besterik ez zara, esaterako.*

Irribarre egin dizu bukatzean, ordea. Zeure hobe beharrez ari zaizu, dudarik gabe. Ezin ahantzi duzu *etzazula gaizki hartu* esan duela; eta zure uste guztiak hankaz goiti jarri dizkizu, mendebaldek kapelua putzura bota dion mendebaldeko gizon erukarria ematen duzu. Menturaz planta batean eman duzu bizitza osoa. *Egunon* esan behar al da gogorik ez duzunean? Eutsi behar al zaio korrokadari otorduetan? Isiltzea eta alde egitea ote ergelkeriari erantzungo modu hobereana? Bai, badirudi badela zer pentsatu.

No question. Hain jota dirudien gure zibilizazioaren muinera jo besterik ez du mendebaldeko bizilagunak. Ez du zertan kezkatu. Sekulako gordinkeriak botatzeko prest dagoen hori ironia bat harrapatzeko gauza den egunean agian bai, orduan joko berean ari garela esan beharko dugu. Bitartean, barkatuko ahal gaituztel!

Lizarra • Sekula baino jende gehiago

Uda honetan inoiz baino turista eta erromes gehiago izan da Lizarran

Aste Santuko hamabortz egunetan eta udako bi hilabetetan -uztalla eta abuztua-, 25.000 lagun pasatu dira Lizarrako Turismo Bulegotik. Sekula baino jende gehiago, eta horren arrazoi nagusia aurten Donejakue urtea delako izan da.



Udan jende mordo pasatu da Lizarrako Turismo Bulegotik, hiriarri eta inguruei buruzko informazio bila.

KRISTINA BERASAIN

EGUNEROKO IRUDIA DA EGA ibaiak zeharkatzen duen hirian, makulua eskuan hartuta, erromesak La Rua kalean gora eta behera ikustea. Edota erromatar zubiaren gainean txirrindulari gazte taldea ikustea. Edota San Pedro elizako eskailera luzetan jendea eserita ikustea. Edota La Mona iturrian atzerritar batzuk ur freskoa edaten ikustea. Edota Hilobi Santuko atarian ikasle talde mordo arte gidariaren hitzak entzuten ikustea. Edota japoniar bat antzinako Nafarroako Jauregiko kapitulari argazkia ateratzen ikustea. Edota Lizarra kanpinetik hirira oinez abiatzen den familia ikustea. Edota, batez

ere, Turismo Bulegora informazio bila jende mordo joaten ikustea.

Orotara, 25.000 pertsona pasatu dira Lizarratik Aste Santuan eta uztail eta abuztuan, iaz baino 8.000 lagun gehiago denbora tarte beretan. Abuztua izan da jende

gehien erakarri dituen hila, 11.000 turista igaro baitira Lizarratik. Horien artean erromesak dira aipagarri, baina baita Lizarratik turismoa egitera datorren jendea ere. «Gero eta atzerritar jende gehiago dator gurera», adierazi diote NAFARKARIARI

Turismo Bulegotik. «Orain arte frantziarrak, alemaniarak eta holandarrak etortzen ziren batik bat, baina aurten Italiatik, Belgikatik, EEBBetatik, Japoniatik, Ingalaterratik eta Hego Amerikatik ere jende anitz etorri da». Gauzak horrela, erran beharra dago aurten, besteak beste, Brasil, Argentina eta Mexiko herrialdeetatik etorri eta Donejakue Bidea amaieraraino arte egin duen jendea asko izan dela. Euskal Herriatik bertatik ere jende anitz etorri da. Baita Madril, Katalunia, Andaluzia eta Valentziatik ere.

Lizarra Donejakue Bidean dagoen hiria izanik, erromesek iragan beharreko lekua da. Halaber, erromes bideko gune garrantzitsua izateaz gain, bertako arteak, historiak, folkloreak, paisaiak eta inguruko naturak ere turista anitz erakartzen dute. Hala, Turismo Bulegoan Lizarraldean zehar txangoak egiteko aukera eskaintzen dute, hala nola Lizarrako historian zehar ibilbidea egiteko aukera. «Erdi Aroan gaudela ematen du —esan du brasildar erromes batek—, une batetik bertara kalean barrena zaldun bat agertuko dela pentsatzen dut». Guk ongietorria eman eta bide ona opa diogu. Ultra!

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Edume Elizondo

Diane Tellen bisita

Diane Tell abeslari quebecarraren azken diskoaren berri jaso du **Herria** astekariak plazaratutako azken zenbakian, Bidarra herrira egindako bisita aitzakiaz hartuz. «Gertakari arraroa bizi izan dugu joan den astean gure herrian. Mundu guzira kurrutua duen fama haundiko kantari batek gure herri ttipia hautatu du bere diska berriaren grabatzeko. Eskaintza gaitza egin dauku hor Diane Tell kebekiarrak. Egia erran, ez dugu arras arrotza kantari hau. Hamabi urte huntan gure kostaldean bizi da, eta urte bat huntan behin baino gehiagotan Ortzaize

aldean beraren ikusteko parada ukan dugu, bereziki heren-munduaren lagun-tzarako sortua duen Zeruko Txalupa elkartearen bidez».

«Bizpahiru egunez, Bidarrain ginuen beraz, Barberaenea ostatuan, bere musikari eta teknikalariekin. Eta astearte arratsean, eliza betexea zen kontzerturako. 10 diska ditu plazaratuak. 11. da beraz gutartean grabatu duen hau, bere lehena publikoki grabatzen duena. Eta berak zioen bezala, Parise aldean bezain toki egokiak edo berdin egokiagoak dira hemengo xokoak hortarako».

«Xoratu gira kantaldi guzian, haren kantuen hitz guziaz ez baziren ere gure beharrietan begar den bezala sartzen. Jendeekin harreman goxoa, irria nasai, boz ederra, kantu hunkigarriak. Hamar bat eman ditu: *Jimmyren leienda*, *Gizon bat banintz* eta bertze... Sendimenduz beterikako kantuak, maitasuna, adixkidetasuna, elkartasuna gorai patuz, egoismoa salatuz... Eta zer graziarekin eman duen, euskaraz, Joxan Artzeren *Hegoak* kantu mitiko! Hiru musikariak ere, ingelesak, talendu haundikoak dira».



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Kometen buztana

Kartoizko kaxak asko dira, eta beraien artean eserita nagoelarik zera esango dizuet: bizitzatik kometen antzera pasatzen garela. Kometen antzera, gu, giza puska txiki hotz eta, batez ere, zikin eta, batez ere, argirik gabekoak eta, batez ere, bakar-tasunean bizitzatik igarotzen garela ziztu bizian. Ez garela deus ere ez, apenas garen hori ere, baina hori bai: gure atzetik eramaten dugu krixton buztan luzea, gu baino mila aldiz luzeagoa dena, kometen antzera, izotz puska txiki zikin horien antzera, gu. Eta bereziki etxe aldaketa egiterakoan nabarmentzen da buztan hori. Eta bereziki kartoizko kaxa pilatu, madarikatu, horiek zabaltzerakoan, orduan konturatzen baikara zenbat eta zenbat gauza segika ditugun, redios, zenbat eta zenbat gauza. Esate baterako, hamar urterekin egin zenuen marrazkitxo hura, bai, hori behi bat da, omen, gorritz dagoen zirriborro hori, ikastolan egindakoa, hor jartzen baitu: 4-A. Klasea, noski. Esate baterako @Iclick de Famobil@-ak. Zertarako nahi dituzu? Ez al zara haundiegia jada? Pena ematen dizu jostailu txiki horiek botatzea. Eta liburu horiek, ez al da garaia guztiak, kaxa horretan dauden guzti-guztiak, zaramara botatzeko? Txarrak baino txarragoak dira guztiak. Orain konturatzen zara ze txarrak diren. Argazkiak. Batez ere argazki solte horiek inongo albumetan kokapenik aurkifuz ez dutenak, zenbat oroimen horiek ere buztan luzean pilatuak, gure iraganeko unibertso beltz horretan urrutira galtzen diren argazki solte horiek. Eta paperak, txikitxo horiek. Batean telefono bat ageri da. Norena? Batek daki. Eta nerabe izan zinen garaian idatzitako @Idiario@- horiei buruz zer esan? Tamalgarriak dira goitik beiti. Inongo garrantzirik ez duten gauzei krixton garrantzia ematen genien. Ai! Izotz puska txiki zikina, buztan luzeduna. Zenbat eta zenbat gauza dituzun atzetik segika! Deusetako ez, ordea. Biluzik ez egoteagatik, besterik gabe. Unibertso beltzean argigarri izan litekeen zer edo zer eskura izateagatik, besterik gabe. Giza puska zikin eta txiki hori!

Argako lanak, kontrolpean

Txantreako bizilagunak Argako Ibai Parkeko lanak kontrolatzen ari dira, inguruan kalterik ttikiena eragin dezaten

Argaren Plan Integralaren barnean, uztaillaren bukaeran hasi ziren lanak ibaiak Iruñean egiten dituen 11 kilometroetan. Argako Ibai Parkeko egiteko lanek ika-mika sortu dute hiriburuan, ibaiertzeko landaretzan, batetik, eta ibai ondoko erajkin historikoetan, bestetik, eragin dituzten kalteengatik. Txantreako bizilagunak zelatan ibili dira, hondeamakinak mendeetako historia desagertaraz ez dezaten. Caparrosoko Errotan arreta berezia jarri dute txantrearrek.

AZKEEN HILABETEETAN BEGI ASKO IZAN dira Argako lanei begira. Arazo ekologikoaz Gurelur talde ekologista arduratu da, eta Txantreako bizilagunek, halaber, arreta handiz segitu dituzte lanak, batez ere Caparrosoko Errotan egin dituztenak. Eta beharra ikusi dutenean, lanak geldiarazi zituzte. Txantreako Auzo Elkarteak kide Asier Urzaik dioenez, «ingurua, ondarea eta historia errespetatzen ez duten ekintzen aurka egin dugu».

Caparrosoko Errota XI. mendekoa da, eta gero, XV. mendean, handitu egin zuten. Errotaren ubidea ere XV. mendekoa da, eta abuztuaren erdialdean Txantreako bizilagunek ikusi zuten nola hondeamakinak azalerazi zuten modu berean suntsitu egin zituztela murrak. «Ubidearena zentzugabekeria iruditzen zaigu», erran du Urzaik. «Dirua lortzeko korrika eta presaka egiten diren lan horietako bat dugu Argakoa. Azkar hasi ziren lanean Europatik diru asko jaso dutelako, eta diru-laguntza hori justifikatzeko zer edo zer egiten hasi behar zuten. Adibidez, ibaiaren eskuineko ertzean bazegoen dike bat, oso zaharra. Eraikin hidrauliko arrunta zen, baina oso baliagarria, ibaiaren nondik norakoak arrunt ongi kontuan hartzen zituen. Nekazariak horrekin lortzen zuten urari eustea. Hondeamakinak hori ere botatu zuten».

Paseoan eta zelatan

Peio Iraitzotz Magdalenako bizilagunak ia egunero kontrolatu ditu lanak. «Betidanik interesatu zait Caparrosoko Errota eta, konpontzen ari zirenez, noizean behin bueltatxo bat egiten nuen hortik», azaldu digu Iraitzotzek. «Baina aste batean oportetari izan nintzen eta itzuli nintzanean ikusi nuen errotaren ubidearen erdia suntsitu zutela». Iraitzotzek dioenez, errotaren lehengoratzeara daraman arkitektoaren lana ere zaintzen du berak. «Bi astetan ez da lanetik

agertu, eta harlanduak atera dituzte etengabe. Horretaz jabetu dira, baina errazagoa egiten zaie lasterka aritzea epeak betetzeko. Ubidea porlanez berregin nahi dute. Zentzugabea da XV. mendeko errota bati hormigoizko ubidea paratzea. Atera duten hariarekin berregitea proposatu diegu. Erran digute ez dakitela non dagoen. Harri horiekin komertziatu egin dutela uste dugu, diru asko balio baitute».

Errotaren ubidea XVIII. mendeko mineta batekin batzen da. Arrunt polita, bi metro eta erdiko altuerakoa, oso ongi egin, harrizko paretak eta adreiluzko ganga bikoitzekoa. Hondeamakinak hori ere eratsi zuten. «XIX. mendean bertan bi kontrabandista hil zirela entzuna dut», azaldu du Iraitzotzek. «Mineta horretan barrena Iruñeraino helitzen ziren, baina urak igo ziren batean ito egin ziren, bost fardel zeramatzatela. Hori jakina zen, baina ez genuen istorioa ongi kokatzen. Eta ubidea ireki zutenean hantxe ikusi genuen mineta hori. Eta orain suntsitu egin dute».


Iraitzotz saiatzen da egunero errotaren ondotik pasatzen, baina hondeamakinak lanean segitzen dute, eta bost minututan gauza asko suntsi daitezkeela ohartarazi du. «Guk ikusten dugu egiten dutena, baina hondeamakinak manejatzen duenari ezin diezaiokegu erran zerbait azaleratzen denean gelditzeko. Hori beste batek egin behar du. Kontrol eskasa da gurea», ondorioztatzen du Iraitzotzek.

Gurelur, ingurugiroari adi

GURELUR TALDE EKOLOGISTA Argako ibaian egiten ari diren lanak kontrolatzen ari da, kalte ekologikorrak eragiten dituztenak. Hasiere batean, Gurelurrek lanak gelditu zituen, salaketa jarri zuen Guardia Zibilaren Naturaren Zerbitzuan, eta Europako Batasunean kexa agertzeko moduan zela jakinarazi zuen. Hori dela eta, Udala Gurelurrekin hitz egin zuen, eta ekologistek eginiko proposamen gehienak onartuko zituela zin egin zuen. Batez ere omen zuten egin; horregatik, Gurelurrek lanak gelditu zituen bigarren aldiz, eta berriro mehatxatu zuen Europako Batasuneko salaketarekin.


Orain, Gurelurreko idazkari nagusi Antonio Munillak adierazi duenez, «Udalak elkarriketaren bidez sartu du berriz ere eta, erraterako, Arrotxapea eskuineko zatian, azken ekintza egin genuen lekuan, landaretzan %75 errespetatzen dituzten lortu dugu, beraiek dena kendu nahi zutelarik».

Munillak uste du hemendik aitzina Udalak akordioak beteko dituela. «Ez zituzten akordioak bete, uste dutelako ekologistek kontent geundela hedabideetan agertu ginelako», erran du. «Europako Batasunaren aitzina salaketa egitearen mehatxuak beldurtzen du gehien Udala, eta horregatik beteko dute hitzartuak. Dena da, badaezpada ere, Gurelurrek Argako lanak kontrolatzen segituko du landaretzan ahalik kalte txikiena eragintzen».



Txantreako bizilagunak arreta handiz jarraitu dituzte Argako lanak, batez ere Caparrosoko Errotaren ingurukoak. ● JOSU SANTEBAN

Arga ibaia Iruñetik barrena



J. APEZTEGIA

Caparrosoko Errotaren garrantzi historikoa

Txantreakoen aburuz, errota hagitz garrantzitsua da, Iruñean XV. mendeko gotikoko herri eraikinak guti direlako, Kontuen Ganbera, San Jose plaza-ko eraikin tiki bat eta Caparrosoko Errota. Beste guzakiak erlijio eraikinak dira. Errota bere horretan mantentzeko, Txantreakoek laguntza eskatu zieten Ondarearen Aldeko Herri Ekimenekoel. Elkarre hiri hori 1996an sortu zen, galtzarriaren eta losetaren arteko polemikan parte hartzeko. Juan del Barrio ekimeneko kide da, eta asteazkenean bertan udaletzeko erregistroan errotaren inguruko hainbat eskaera eta proposamen sartu zuten. Lehenik eta behin, ekimenekoek eskatzen dute lanak gelditzeko azterketa arkeologiko sakona egin artean, antzinako egitura zein den zehazteko. Ubidearen lehengoratzeara jatorrizko murrutatik ateratako materiala erabiliz egitea proposatzen dute. Errotak berezko funtzioa berreskuratzea nahi dute, eta historia eta uraren inguruko museo bilakatzeara. «Projektuan azaltzen den bezala, eraikina Naturaren Interpretazio Zentro bezala erabilitea berriz izango ez den aukera bat gaitzea litzateke», adierazi du Del Barriok. «Caparrosoko Errotak garrantzi historikoa handia du, eta, horregatik, egiten dena ongi hausnartu behar da eta lanen segimendua jarraitu egin behar da, errotaren ubidea desagertarazi duen zorigaitzoko ekintzaren bezalakoak berriro gerta ez daitezkeen».

Euren eskaerak ez badituzte betetzen Europako Batasunera joko dutela diote. Argaren Plan Integralaren lehen aldiko lanak Iruñeko Udala eta Europako Batasuneko FIMMA kohesio fondoek ordaintzen dute. Azken horrek 856 milioi pezeta jarri ditu (34 milioi libera inguru), gastu osoaren %80. Europako Batasunaren argudioa mahai ganean jarri den bakoitzean Udala hitz egin duenari entzun izan dio.

Baratzeak eta desjabetzeak

Errotaz landara, bada beste arazo bat Txantreako bizilagun anitzen gogoan. Europako Batasunak agindu zion Udalarik desjabetze sistemaren bidez ekitea, eta horren bidez 80.000 metro koadro baino gehiago eskuratu ditu. Magdalenako nekazari askori lurra kendu zieten, eta horren truke diru guti ordaindu.

Desjabetze prozesuan diskriminazioa izan dela uste du Asier Urzaik; izan ere, Magdalenako baratzeen ondoan dagoen Club Natacion elkarteari oso lur guti kendu diote. «Parkea Club Natacion elkartearaino helitzen da, eta han haren ertzetik doa», azaldu du

Peio Iraitzotz

TXANTREAKO BIZILAGUNA:
«Guk ikusten dugu egiten dutena, baina, zerbait azaleratzen denean, hondeamakinak manejatzen duenari ezin diezaiokegu erran gelditzeko. Hori beste batek egin behar du. Kontrol eskasa da gurea»


Urzaik. «Eta ertzetik joateko, baratzetik bizi diren laborariei, Zabaltzarrei kasu, baratzeak kendu dizkiete. Lanen lehen aldia ez dute Club Natacion elkartean deus eginen, arras garestia omen delako, eta bigarren aldirako utzi dute. Baina guk uste dugu jabe ttikiekin jokatu duten modu berean jokatu beharko luketela Club Natacionekin».

Urzairen aburuz, «baratzeak Iruñean historikoki oso garrantzitsuak izan dira». Bere ustez, laborariak zaindu du ibalertzta, mendeetan. «Akatsen bat edo beste egin dute, bai, baina 400 urteko historia bere osotasunean hartu behar da. Baratzeak zaindu dituzte, eta ekintza sinpleak eginez inguruari bizitza eman diote. Iruñeko jende anitz jaitsi da baratzeetara bertako laborariei baratzeak erostera eta, bide batez, paseo bat egingo tera. Orain parke bat egin nahi dute, baina jendeak ez du bizitarik gabeko parkerik bisitatzen. Baratzeak bere horretan segitu behar dute, Iruñearen ondare direlako. Erromes askok komentatu dute hiri barnean nekazaritza gune bat izatea gorde beharreko altxorra dela».

Javier Aldaia Arantzadiko nekazaria da. Berak ez du ulertzen zer parke mota egin nahi duten porlana mantenduz eta baratzeak suntsituz. «Arantzadi orain da parke bat, gero ez dakit zer izanen den. Iruñean jende anitz bizi da baratzean ekoizten duenarekin, gauza tradizionala da. Erdi Arotik Iruñerako fruta eta barazkiak ekoiztu dituzten baratzeak suntsitzea lotsagarria iruditzen zait. Parke bat edozein lekutan egin daitezke, baina baratze bat ez».

Arantzadin baratze zati batzuk kendu dituzte, baita nekazaritza ekologikoa egiten dutenek gorotza uzten zuten lekua ere. «Izoztatzen hasi dira, hemendik joan gaitzen», esan digu Aldaia. «Metro koadro bakoitzea 360 pezeta ordainduta egin dute hemen desjabetzea, baina metro koadro bakoitzeko 100 pezeta ordaintzen ditugu zergetan. Ez dugu diru-laguntzarik eskatzen. Arantzadin dagoeneko dagoen parkea suntsi ez dezate-la, besterik ez».

→ Asier Azpilikueta



Txantreako bizilagunak salatu dutenez, hondeamakinak kalte handiak eragin dituzte Caparrosoko Errotaren ubideko murruetan. ● JOSU SANTEBAN

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Beste bi arabarren euskal lanak

Mitxelena eta Zuazo (izan) dira *arabera* zitekeenaren nondik-norakoak azaltzen lehenbizikoak, zalantzarik gabe, hego-mendebaldeko euskara honen lekukotasunik ezearn xuhur jokatu behar baita; ordea, oraino urri zaizkigun testuen kopurua emendatzen doa, eta euskalaritzarako aski ez bada ere, zazpigarren alaba euskaldun nahi dugunondako ezin pozikago hartzeko gertatzen dira.



Manuel Agudek eta Koldo Mitxelena 1958. ean argitaratu zuten Landuchio-ren *Dictionarium Linguae Cantabricae* (1562) Arabako euskalgintzan hatsarria dugu ez-pairik gabe; mende berean, Juan Pérez de Betolazaren kristau dotrina da arabar batek moldeetara emaniko lehen lana (1596) -honetan ere, Mitxelena zor zaio edizio berria, 1955.eko BAPn; Hendrike Knörr izan zen, bestalde, Betolaza arabarra zela arazki erakutsi diguna; geroagokoak dira Martin Portalen olerkia, Iruñean 1610.eko Bazko-Berriko sariketan irabazle gertatu zena, Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo Sabandoko joslagunak XVIII. mendean Iruñean izkiriatu zizkigun olerkiak, Okondoko Jose Pablo Ulibarri Galíndez Abandotik igorri gutuneria eta aitzineratu lan itzela, 1858. ean Bonaparte printzeak Londresen bertan argitaratu eman zuten Laudio dotrina, edota, finean, Laudio Ignazio Galíndezek 1872. ean itzulkatu zuen Ruthen liburua -baita Knörrek ezagutarazia, 1985. ean-. Oraingoan berriz, zerrenda kamuts honi atxek diezazkiogun XVIII. mendeko beste bi izen, halabeharrez, lehengusu urrunak direnak.

Laster beteko dira bost urte enantzo itzeleko Fidel Altuna ikaskide goerriarrak «Acto contriciocoa eriotza orduraco» Julio Urkixo mintegiaren papelean argitaratu zuenetik -oixtion ere, Asteasuko Agirre-ren *Erakusaldia* «Klasikoak» sailerako atondu ditu Altunak, euskal filologiaren ikasketetan gelditu ezinezko abiadura hartu duela frogagarri-. Hartan, Arabako euskal idazle ezezagun baten berri eman zigun osoro zehatz, aratzen zein luze, Julian García de Albeniz lautadarrez, hots, Araian, 1744.eko ekainaren 28tik 1745.eko maiatzaren 20ra doan denbora tartean jaitoa, araiarrak ere baziren lau sailhetsetarik zetozkion bere aska-

ziak oro, aipatu García de Albeniz hartaz aparte, Ruiz de Muniain eta Martínez de Arostegi zirenak. Apaiztu ondorean, sorterritik hurbil dagoen Done-miliagako Ordoñanara joan zitzaigun 1774.eko azaroan bertako erretore, eta hartan irauin zigun 1780. ean Araia bertako erretore aldatu zuten arte; Araiatik jada ez zen aterako, eta bertan hil zen 1812.eko uz-tailaren 28an. Halaz guztiz, euskal letretara igaro bazaigu Ordoñan zegoela erosi zuen liburu batean izkiriaturik utzi zizkigunengatik izan da, ez besterengatik ere.

Julio Urkixok berak bere liburutegian zeukan Olaetxearen dotrinaren alekia da Julian García de Albenizek Bilbon erosi zuena, azalean horrela dakarkigunez: (Julian García de Albeniz cura de Ordoñana. Costa zan erreal bi terdi. Eche santu onetan: 1778) -Laukarizko abadea izan ondoan Bilboko ospitale santuko erretore zen Bartolome Olaetxeak 1775. ean bigarrenez argitaratu emaniko *Cristinauben dotriniaz* ari gara naski-. Erositako dotrinari, eta behar guztietan aisago erabili ahal izateko, berak idatzi zazpi orrialdeko eskuizkribua erantsi zion aipatu *Acto contriciocoa eriotzaco orduraco* dena, eta berriz ere enkuadernarazi zuen liburukia. Urkixok, auzaz, ez zen testu labur honen balioaz konturatu, eta gipuzkera zaharraren lekuko xerka ibili den Fidel Altunak topatu arte itxaron behar izan dugu Arabako beste egile hau ezagutu ahal izateko.

Muruzabalen apez ziharduen Pedro Izuk 312 orrialdeko eskuizkribu helarazi zion Jose Maria Satrustegiri 1979. inguruan. Bildumaren azalean

agertzen zaigun testuen jabea frai Felix Langarikako kaputxinotarra dugu. Felix Antonio López de Luzuriaga González de Larrainzar 1756.eko azaroaren 20an sortu zen Langarrikan; hau ere arabar peto petoa, sendi erroak Langarrikan, Herdian, Ozaetan eta Araian zituak; aitaren aldetiko amona Mariana Martínez de Arostegi araiarra zuen, beraz, gorago aipatu García de Albeniz eta López de Luzuriaga hau lehengusu urrunak genituen -hau da, bataren aitaren aldetiko amona eta amaren aldetiko aitona, eta bestearen aitaren aldetiko amona anai arrebak ziren, Araia Martínez de Arostegitarra hain zuzen ere-. Felix Antonio Cintruénigon egin zen kaputxino 1776.eko otsailaren 17an, konbentzioaren gerratean Elizondon, Bertizko jaurren eta Marcillan ibili zen eriazin, eta azkenik, Muruzabalen erretore arizan zen, ez litzar-beibarrean kaputxinotarren etxerik zegoelako, ezpada XIX. mendean hasmentetan, ordenendako hain nahasgarria izan zen tenore hartan, erligioso asko parrokietan sartu zirelako, esaterako, Esteban Adoingoa, sorterritik hurbileko Imirizaldu eta Irurozkin ibili zitzaiguna. Ez dira bildumaren izkribuak oro frai Felixek eginak, baina kaputxinotarrak ondu 23 sermoi ez da kopuru makala; bestetik, gauza jakina da Langarikakoak ez zituela idatzi garizumako misioaldietarako predikuguzti hauek Muruzabalen bertan, abantxu ziurra baita 1780. urte ingurukoak direla, frantsesealdia baino lehengokoak alegia; edozein modutan ere, hegoaldeko nafarreraren ezaugarriak nahikoa garbi erakusten dizkigute, eta litzar-beibarreko hirian erabili zituela ezin zalantzan ezar. Araia lehengusuak egin bezala, Langarikakoak ez zigun eskeini, tamalez, arabar sorterriko hizkera, baina ezin da ukatu egile arabarren korpusean berebiziko sarrera egin digula.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Itsuen negar mututua

ITSU KOPLARIAREN MITOA argiaren mundu zaharretik sortua da. Gizona aurrenekoz negarrez hasi zen mundu zahar hartatik honuntz, Grezian edo herrialde germaniko eta zeltikoetan barrena gureganaino iritsiko zen gero koplari itsuaren mitoa.

Baina kontua ez da mitohuts, izan ere, zinetan baitziren itsu aintzinako rapsoda, bardo, juglare, trobadore eta beste. Zerbaitegatik deitu izan zaie kastillanoz «coplas (edo cantares) de ciegos» gure bertsopaperei. Hala eta guzi itsu paperan ibilitako alferjende pikarok erruz izan da, maiz ageri baita «bagabundos y ciegos fingidos» delakoan auzia paper zaharretan, eta ediktoak ere ez gutxi, koplakantuan aritzeko baimena zinez itsu direnei bakarrik emanez.

Behiala leitu Ensayo sobre la literatura de cordel liburutik hartua dizut, Tomas Iriartearen pasarte hau: (...)

esquina o portal, en donde un ciego, canta y vende sus coplas chabacanas, cercado de vulgar y zafia gente.

Eta eguzkiaren argiak oraino begi biak pizten zizkion beste bertsolariren batek moldatuko zizkion koplak itsuari askotan. Hala aitortzen digu Hitako Artzapezpikuak ere:

Cantares fiz algunos, de los que dicen los ciegos E para escolares, que andan nocharniegos, E para otros muchos por puertas andariegos, Caçurros e burlas: non cabrían en diez pliegos.

Kantuaren negarri esku-soinu ttar batekin lagunduko zion itsuak. Covarrubiasek dio «sinfonia» zela itsuek endemas ertaroan erabiltzen zuten musika tresna, eta txakurtxo jostari baten lagun-

tza. Grezia zaharrean «zitarra» hain zuzen, gure «kitarra» hitzaren guraso izana.

Eta etxeraino etorritik, Ezkioko itsuak «zerragotea esaten zitzaion eskusoiñua» jotzen omen zuten, Azkuek jasotako «zarrabete» delakoa, alegia. Segurakoak, «begietako argiak burura iges egin zion» hark, berriz, hala dio:

«Nere emaztea da jaiotzez naparra (...) arrek panderua jo, nik berriz kitarra.»

Asteasuko itsu sonatu haletaz, hala dio berriz Mikela Elizegik: «Esaten zan aurrekoai maldizioa egin ziotela. Argi jaiotzen ziran, baiñan, gizon eginda gero, itxutu. Aitak Joxe Anjel zuan izena. Onen semeak danak itxuak. Laurok erriko danbolinak ziran. Ikusiak ditut nik, ume denboran, aita-seme oiek Asteasuko plazan soñu jotzen ta gazteri guzia dantzatan. Pena ederra ematen zuten».

Baina koplari ere aritzen ziren. Hona itsuotako baten-tzako Altzoko Imazek ateratxo bertsoak nola aipatzen dituen Bergarako inprenta batek 1861ean: «nola moldizquidatu ditudan versoac bi milla, orain contestatu cembat dan zure originalaren saria, cergatik ichuac esan dit, pocic pagatuco dizula ogei errial copia bacoitzagatik».

Gure itsu guzian aita Zavalari, berriz, honela esan zion Jose Inazio Lasak Arantzazun: «nere osaba zar batek, ni bezela Matxinbentan jaitoa, karlistetara joan, bigarren gerrara eta bista galdu zuan. Ondoren, erriz erriz ibiltzen zan, bioliña joaz bertso kantari».

Zenbat holako izan ote da gurean Kaxianoganaino? Antologia hunkigarri baten hutsa sumatzen dut. Zer aproposagorik Antonioren *honoris causa* hori emendatzeko?

Ziria

• Motxorrosolo •

Iruñea lozorroan

AURREKO HAMARKADAN TAFALLA GAILENDU ZITZAION. ORAINGO honetan, Baztan-Bidasoa eskualdea aitzinatu zaio. Inguruko hiriburuekin alderatu ezinean dabilenak berehalako errentagarritasuna bilatu ohi du, anitz baitira asean eduki behar direnak.

Aitor Txarterina

☉ Ipuin kontalaria

«Helduendako ipuinak kontatzea nahiago dut»

Aitor Txarterinak, Abusun, Bizkaian, jaiotako iruindar ipuin kontalariak, Iruñeko haurrentzako antzerki testuen lehiaketa irabazi du euskarazko Ollarra eta gizona antzezlanarekin. Oraingoan haurrentzako testuen lehiaketa bat irabazi badu ere, ipuinak helduei kontatzea nahiago du, "istorioa xurgatzeko esperientzia dutelako".



JOXE LACALLE

LEHEN ALDIZ AURKEZTU DA Aitor Txarterina testu lehiaketa batera, eta irabazi. Gustua hartu dio, eta bertze lehiaketa batzuk ditu buruan.

■ **Zergatik aurkeztu zinen lehiaketa honetara?**

Batetik, banekien nahiko jende gutxi aurkeztuko zela. Horretan asmatu nuen, lau bertzerik aurkeztu ez zirelako. Bertzetik, ikusten nuen zerbait idazteko gauza nintzela. Gainera, **umendako mundu horretan ikusten nuen bazegoela zabarkeria anitz eta manikeismo ikaragarria. Horren kontrako zerbait egin nahi nuen, umeendako baliagarria izanen litzatekeen zerbait. Gero saria etorri da eta ezustean harra-patu nau.**

■ **Zer nolako manikeismoa dago haurrekin?**

Disney etxearen edozein filmetan, erraterako, pertsonaien karakterizazioa karra-tua da oso. Tontoa da tonto, graziosoa grazioso, eta ona ezin onagoa. Eta gaiztoa ez da gaiztoa, deabrua bera da. Umeek ez dute ulertzen, edo ez zaie ulertarazten, ona denak baduela gaiztoaren aurpegia eta gaiztoak ere baduela bere bihotz ttikia. Alde horre-

tatik, nik ikusten nuen bazegoela zabarkeria bat, eta horren kontra jo nahi nuen. Nolanahi ere, nahiago dut helduendako ipuinak kontatzea.

■ **Helduek hobeto ulertzen dituzte zure ipuinak haurrek baino?**

Nik irakurri dut Asterix eta Obelix 8, 14 eta 26 urtekin. Eta hiru irakurketa ezberdin egin ditut, nire esperientzien bitartez irakurtzen dudalako. Helduek esperientzia jartzen

dute istorioak ulertzeko, beraien sentitzen dira identifikatuak pertsona batekin edo bertzearekin, imajinatzen dituzte modu batean edo bertzean. Ez dut erraten kontatzen ditudan istorioak umeek ulertu ezin dituztenik. Umeak oso azkarrak dira, baina esperientziarik ez dute.

Esperientzia gabezia horrek istorio osoa ez xurgatzera eramaten ditu.

■ **Lehiaketa honetara aurkeztu zituzten gaztelaniazko hogeita hamarren bat lan eta euskarazko lau. Zilegi da gaztelaniazko irabazleak zein euskarazkoak diru kopuru bera jasotzea?**

Ez, nik uste dut lotsagarria dela. Gaztelania da munduan hitz egiten den hirugarren

hizkuntza. Milioi pila dira eta milioi pila horretatik hogeita hamar bertzerik ez dira aurkeztu. Hori lotsagarria da. Oso eskasa izan da partehartzea gaztelaniaz, eta nik uste dut diru gutiago jaso behar luketela gaztelaniazkoek. Gu euskaldunak 600.000 hiztun inguru gara. Horiatarik helduak gutiago dira, eta are gutiago alfabetatuak, eta oraindik gutiago antzerkigintzan gabiltzanak. Hori guzia kontuan hartuta, euskarazko partehartzea ez da inondik inora eskasa izan.

■ **Epaimahaiak erran du zure lana laburra zela.**

Ipuinetan Monterrosozalea naiz. Monterrosoren ipuingintza horrelakoa da: tximista batek jo zuen bi aldiz leku berean, eta bigarren aldian, konturatu zelarik lehenengoan jada kalte handia eragin zuela, oso deprimitu zen. Hori da ipuin bat, hasiera, korapilo eta bukaerarekin, 36 segundotan kontatzeko modukoa. Lehiaketan neurri akats bat izan da, ez baitut uste umeak

egon daitezkeenik ordu eta erdi antzezlan bat ikusten. Nire testua laburra da, baina irekia ere bai zuzendariak nahi duen abiaduran egiteko. Dinamikoa da, gainera, eta umeek ere parte hartuko dute. Umeendako antzezlan bat idazteko, antzerki mundua ezagutu behar duzu, pixka bat maitatu, baita umeak ere.

■ **Zer nahiago duzu antzezlan bat idaztea edo zuzenekoan momentuan bururatzeko zaizuna botatzea?**

Oso sentsazio ezberdinak dira. Biak ditut gustuko. Zuzeneko ipuinek ematen dizute burutik pasatzen zaizun guzia kontatzeko aukera, eta publikoaren artean gertatzen ari den zerbait sartzeko aukera. Bertzetik, orain konturatu naiz idaztea atsegin dudala. Armadetan oso arma eraginkorra da ezustearen faktorea, eta nik beti erabili izan dut. Jendeak espero ez duena atsegin dut, gustukoa dudu-

s o s l a i a

Aitor Txarterina, Baltziskueta izengoiti-az ere ezaguna, 1973an jaio zen, Abusun. "Bizkaian jaio nintzelako naiz nafarra", erran du Txarterinak. 1996ko sanferminetan Iruñera etorri zen, "Pirinioetatik hurbilago egoteko, AEKn segitzeko, baina bertze herrialde batean, eta lagun inguru bat nuelako hemen". EHU-n hasi zituen Soziologia ikasketak eta NUPen jarraitu. Horretan dabil oraindik. Intsumisioa izan zen eta Iruñeko kartzelan bete zuen bere zigorra.

Euskaldun prefabrikatua da, euskara Abusuko euskaltegian ikasi baitzuen. Euskal Idazleen Elkarte-ko proiektu batean ari da ipuin kontalari gisa, "gazte makarra eta sasipunki horiei guzietan literatura kaka zaharra ez dela" azaldu nahian. "Gazteei euren hizkeran ulertarazi behar zaie, konplizidade batekin, literaturarekin gozatzen ahal dela", adierazi du.

Txarterinak ez du bere burua etiketatzea gustuko. Ipuin kontalaria da, baina baita soziologoa ere (bidean dago), bere neskaren maitale, idazlea, komikilaria edo arno egile Mañerun. "Nire bizitzan zerbait azpimarratu beharreko bada, nire euskalzaletasuna da", gaineratu du. Orain kirol saio bat egiten du Euskalerrira Irratian, "lizentziarik ez duelako, pobreekin eta baztertu-ekin egotea atsegin baitut".

na. Ez dut inoiz lortuko espezializazio bat ezertan, baina izanen dut jakinduria orokor bat.

■ **Saria irabazteak zure benetako izena ezagutarazi du. Baltziskueta izengoitia bazterturik utzi duzu?**

Ez. Alde batetik Aitor Txarterina dago eta bertzetik Baltziskueta. Baltziskueta jarratzen du sorpresa faktorearen komandante bezala. Gainera, uste dut Baltziskueta irabazi duela saria. Baina Aitor Txarterinari egin diote el-karrizketa.

→ Asier Azpilikueta

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko irailaren 24a

ZALDIEROA.komikizopa



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Baskokozitoak

Manuel Patarroyok, Miguel Sanz eskuinean eserita dagoela, malariaren aurkako hitzaldia hasi du Nafarroako Unibertsitate Publikoko areto nagusian. Bat-batean loak hartu du gure presidentea. Biharamunean, astero bezala, kontseilariekin bildu da UPNko burua. Gobernuakideei ezohiko gogoeta bat azaldu die: «Nafarroako zelula foralak arrisku bizian daude. Gure identitatea babesteko txerto bat asmatu behar dugu».

Horren ostean, Rafael Gurreak aipatu du azken hauteskundeetan mikrobio abertzaleek 60.000 nafar kutsatu dituztela. Halaber, hezkuntza kontseilariak ikasurte honetan ikasleen %30 euskararen D bakterioak jota daudela azpimarratu du.

Gobernuakideak batzar gelan dagoen mediku bakarrari begira jarri dira. Santiago Cervera, Osasun sailko arduraduna, behin-behineko diagnostikoa egiten saiatu da: «Baskokozitoen infekzio baten aurrean gaude, eta egoera horrek, izurrite bat eragin dezake Foru Komunitatean».

Azkenean, erabaki zehatzak hartu dituzte: 1) Gizartean inkubatzeko ari den egoera berriari «Lizarrako sindromea» deitzea. 2) Nafarroako Unibertsitate pribatuari 3.000 milioi pezetako diru laguntza ematea txerto berriaren ikerketa bere gain hartzeko. 3) Baskokozitoen aurkako formula lortu bezain pronto, kutsatutako nafar guztiak lehenbaila txertatzea.

Erabaki horiek Cordovillako equipo medico habitual-aren azken bisturi ukituaren zain gelditu dira. Dena den, NAFARKARIAK iturri onetik jasotako filtrazio baten arabera, Diarioko zirujauak txerto berriaren mutazio eragina indartzeko apustua egin dute. Hedabideen, inposaketaren eta por mis cojones-en bidez lortu ezin dena, xiringaren bitartez frogatu nahi dute. Beren gizarte eta kultur eredutik at bizi diren nafar guztiak txertatu nahi dituzte: ekologistak, elkarte kulturaletako bazki-deak, etorkinak, ateoak, homosexualak, antimilitaristak, artistak, kazetariak, gaztetxeetako kideak eta beste hainbat.

Bat-batean, argazkilari baten flash-ak esnatu du Patarroyoren eskuinean (non bestela) eserita dagoen Sanz jauna.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Iruña:** Joaquin Sabina kantaria, Anaitasuna kiroldegian, 22:00etatik aitzina.

HITZALDIAK

► **Iruña:** Jose Eliasek Hipnosia, osatzeko beste modu bat hitzaldia eskainiko du gaur Zentzu Iruña zentroan, 20.00etan.

BERTSOLARIAK

► **Baribar:** Bertso afaria eginen dute gaur 21:30etan, Jexux Mari Irazu eta Sebastian Lizasorekin.

► **Urrotz:** Asteartean Igor Elortza eta Xabier Amuriza egun osoz ariko dira herrian.

ANTZERKIA

► **Ezkaroze:** Bihar, 20:00etan, Txirristra taldeak Abere kantariak lana antzeztuko du Ibar-Etxean.

ZINEMA

► **Iruña:** Asteazkenean, Buster Keatonen 'Las siete ocasiones' filma pantailaratuko dute Vianako Printzea zinematokietan, 20:00etan, Jose-txo Fernandez de Ortigaren pianoaren eta Mikel Galardiren biolinaren laguntzarekin.

KIROLAK

► **Iruña:** Gaur Suhiltzaileen Nazioarteko I. Lasterketa eginen dute 11:00etan. Lasterketan parte hartzeko derrigorrezkoa da suhiltzaile profesionala izatea.

► **Tafalla:** Bihar BTT bizikleten Gerindako gaineko erlojuaren kontrako III. Igoera eginen dute, 16:30etan.

► **Leitza:** Igandean Mendizale Helduen IX. Ibilaldia eginen dute. Irteera 09:00etan iza-

nen da, Eguzkiko Muñoa (1.082 metro) eta Baztarla (934 metro) mendiak igaroko dira.

► **Gares:** Igandean laien lasterketa 14:00etan.

BESTELAKOAK

► **Espartza:** Gaur, Kontu kontari helduendako ipuin saioa

eskainiko dute Murkuzuria kanpinean, 21:00etan.

► **Iruña:** Bihar, Anaitasuna kiroldegian, Antonio Canales dantzari espainiarraren dantzaldia 21:00etan.


► **Berriozar:** Txori Zuri dantza taldeak 20. urteurrena ospatuko du bihar. Goizeko 11:00etatik 14:00etara jantzi tradizionalen erakusketa eta

taloak izanen dira Eguzki enparantzan. 17:00etan, kalejira hasiko dute Turrillas plazan. Ordu bete geroago urtemugaren oroigarri jaialdia eginen dute leku berean.

► **Iruña:** Bihar, San Fermin Txikito besten barne, presoen aldeko kalejira Alde Zaharretik. Kalejira Nabarrieriako plazan hasiko da, 21:30etan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Non quero ir porque o escolante pégame e a escola cheira que fede.

Ez dut joan nahi, maisuak jotzen nauelako, eta eskolari kiratsa dario.